

Noiz Garzonen ibilbidea epaitzeko eguna?

ALAKRANAREN AUZIAN

bitxia bada ere, ados nago *El Mundo*-ko editorialistak arazoren hasiera eta amaiera arakatean eskaintzen dituen bi klabe nagusiekin. Hasierari buruzkoa: "...labirinto honetan baldin bagaude, nagusiki Garzonen jarduera ausartegiagatik da". Amaierari buruzkoa: "Inoiz baino arrazoi gehiagorekin, orain ezin dira urrats desegokiak eman, are gutxiago, ezin dugu arazorik izan gure kontzientziarekin Alakrana askatzeko edozelako irtenbidetan arakateagatik. Baita ere, azken unean halakorik beharko balitz, bi piratak Auzitegi Nazionaletik Kenia edo Somaliara eramateko legezko bideren bat topatzeagatik, horrekin saihestuko balitz 36 marinelen bizitzak arriskurik txikiena izatea".

Editorialgileak ez ditu "legearen inperioa", "zuzenbide Estatuaren izaera eta indarra" eta herritarrok –euskaldunok bereziki– hainbestetan entzun eta halako arazoetan horren berba hutsalak diren horiek erabili. Hobe horrela. Eta hobe beste hainbestetan ere zentzu berarekin jokatu balitz.

Hori da oro har, Estatuako komunikabideetan eta iritzi publikoan oso sustraitua dagoen iritzia, egin dezala Espainiako Gobernuak egin beharrekoa marinela euren etxeetara bizirik eta inongo kalte barik itzul daitezela. Inoiz ez moduan, Euskal Herrian egindako mobilizazioak ere, gaiaren oinarrian dagoen adostasunaren erakusle dira.

Bost hilabete lehenago, ustezko beste 13 pirata libre utzi zituen Espainiako Auzitegi Nazionalak, epaileen esanetan Kode Penalak "pirateria delitua" kontuan hartzen ez duelako.



Alakraneko marinela aske uzteko eskatu zuten hilaren 7an Bermeen bildutako milaka lagunek.

Oraingoan, Garzonek delitu hori albo-ratu eta "legez kanpoko erakundea osatzea, armak izatea eta lapurketa" leporatu die. Ozeano Indikoan harapatutako somaliarrei, epaile espainiar batek legez kanpoko erakundeko kide izatea leporatzea? Armak eramatea? Gutxienean barregurea ematen du.

Garzon epaileak oraingoan ez zuen prebrikaziorik egingo hala jokatzearekin, baina herritar soilak baldin badaki epaile izarraren erabakiak negoziazioa burutu behar duen Gobernuari zer dakarkion, are gehiago Garzonek berak. Legeak lege, pertsonen bizitza arriskuan jartzen duten jokabideek ere izan beharko lukete lekuri zigor araudietan, gutxiengutxienez epaile edo agintari hori kargugabetzeko.

SEI HILABETE bete dira PSE-EE eta PPK euren gobernu akordioa sinatu zutenetik. PP ez da gobernuan, baina zenbait sailtan balego moduan, esate baterako Herrizaingo Saila eta Hezkuntza, gizartea egituratzeari begira giltzarri diren sailak.

Gaitza da bi eremu horietan izaten ari diren jarrerekin hainbeste erabiltzen den "kontsentsu" hitzak zentzurik izatea. Eta normala da gainera, sozialista eta popularrak gobernura

iritzi ziren aldeketa indarrean jartzeko eta hori egiten ari dira, konplexurik gabe gainera. Hori bai, kontsentsua, bizikidetzak, askatasuna eta gisakoen aitzakia baino, hobe lukete aitortzea ideologia batek eta ideia politiko batzuk bultzata ari direla. Hori da gobernu guztiek egiten dutena.

Dena den, kontsentsu eta bizikidetzak gutxi bultzatuta daitezke, oraingo hezkuntza sailetik esaten denean, lehengo hezkuntza sailaren arauak EAEko biztanleen %80 atzerritartzat hartzen dutela.

Eta, beraz, ondorioztatu daiteke, %20ko horren ordezkariak ari zirela %80ko horien seme-alabak "adoktrinatu". Errealitateaz egindako tamainako faltsukeriak ezin dezake ezer txukunik eraiki.

Ez da egia euskara eta gaztelera orain maila berean jarri direnik. Legearen ikuspegitik, gauzak ondo finkatuta daude duela 30 urtetik hona: Espainiako Konstituzioak argi eta garbi uzten du herritar guztiek dutela gaztelania "ezagutu beharra" eta, hala nahi izanez gero, "erabiltzeko eskubidea"; beste hizkuntzak eskubideen eremuan geratzen dira, ez dira derrigorrezkoak ezta euren autonomietan ere. Bai, EAEn koofizialak dira gaztelania eta euskara, baina legezko auzi larrietan ezaguna da Auzitegi Gorena eta Konstituzionala zertan oinarritzen diren.

Baina legezko egoera albo batera utzita, are eta larriagoa da berdintasun itxurakeria horiek haizatea hizkuntza baten eta bestearen benetako errealitatea zein den ikusita. Besterik gabe, euskaraz normaltasunez bizi gura duten milaka euskaldunei iseka egitea da.